

# KANALAK

Eskainiko duguna, zerbitzu bat denez, gure gimnasio propioa edukiko dugu. Honek, gure bezeroak edozein momentutan zerbairekin kontsultatu nahi badu, aurrez-aurrez hitz egiteko aukera edukiko du, baita guk beraiekin ere. Dena guk geuk egin eta zuzenduko dugu: entrenatzaile-lanak, harrera-lanak, garbiketalaranak... gure artean lana banatuko dugu eta bakoitzak bere zeregina edo postua edukiko dugu ezarrita.

Gaur egungo sare sozialen indarra ikusita, Instagram, Twitter eta Facebooken, gure kontu pertsonala edukiko dugu gure bezeroengana edo etorkizuneko bezeroengana iristeko, hauek izango dira gure komunikazio kanalk. Hauetan, gure burua aurkeztu, gure zerbitzua zein den erakutsi eta bezeroak lortzen saiatuko gara. Gure zerbitzua nahi badute edo hobe ezagutu nahi badute, bertan izango dute adierazita gimnasioaren helbidea, enpresaren telefono zenbaki eta korreoa. Gimnasioari buruzko berriak edo kasuren batean aldaketaren bat egoteko unean, bertan ere berri emango dugu. Hau gutxi balitz, gure web pertsonala ere izango dugu, non gutxi gorabehera, sare sozialen helburu eta egitura bera izango duen. Bertan, gure gimnasioa, gimnasio berritzaile eta *eco-friendly* bezala salduko dugu.

Salmenta kanalei dagokienez, gure gimnasioa izango da. Gure zerbitzuak, gimnasioaren inguruan biratzen du. Zerbitzuaz gozatu nahi baduzu, gimnasiora etorri behar zara, ez bado egiteko beste modurik, baina bezeroak hau guztia argi izango du, gimnasio guztiak horrela funtzionatzen baidute. Pertsona askoren artean partekatzen den gune bat izango da. Hau zerbitzua erabiltzerakoan izango da, baina, gurekin kontaktuan bakarrik jarri nahi badu, ez da beharrezkoa izango gureganaino etortzea. Honetarako, gaur egun ditugun teknologiari esker dugun mugikorra eta ordenagailua erabiliko dugu, deitzeko edo mezu bat bidaltzeko, bezeroaren gustura, noski.